

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Regino Biain Guridi

*Oñati,
Gipuzkoa
(1916-2016)*

Aurkibidea



Biografia



Kale Zaharrear jaio zen, zazpi anai-arrebatatik zaharrena. Aita bertakoa zen eta ama Torre Auzoko Torre baserrikoa. Unibertsitatean zegoen Maristen eskolan ikasi zuen hamabi urtera arte. Maristek alde egin zutenean, "Instituto de Enseñanza Secundaria" jarri zuten eta bertan ikasi zuen hemezortzi izan zituen arte. Etxean dirurik ez eta "Perito Mercantil" ikasketak bide batez egiteko asmoarekin, boluntario joan zen soldaduskara Donostiara. Soldaduskan zegoela gerra hasi zen, eta "Batallón de Trabajadores"etik pasatuta, lau urte egon zen Oñatira etorri gabe. "Fábrica de Carretillas y mangos de Herramientas" Galdos lantegian hamar urtez, eta "Fábrica de Herramientas Onraita S.A."n beste 32 urtez egin zuen lan administratzaile ardurarekin. Oñatiko Ospitale Zaharrear hasita, Etxaluzekoan jarraitu eta San Martineko Egoitzan bukatuz, administratzaile lanak egin zituen dohainik 36 urtez. Mendizale amorratua, ia jaiero joaten zen Urbiara 85 urte izan zituen arte. Bertan Aita Lasari meza ematen laguntzen zion, eta Perusaroiko elkartearen fundatzaileetako bat izan zen. Juanita Zubiagirre "Pollangua"rekin ezkondu zen eta lau seme-alaba izan zituzten.

Zintak

ONA-133

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-08-16
- **Iraupena:** 83 min

- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Ikasketak: maristak, batxilergoa eta Perito Mercantil

- **Erref:** ONA-133/002
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:01:22. **Bukatu:** 00:04:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Eskolan 12 urte arte maristetan ibili zen, unibertsitatean. Maristak joan egin ziren gerra garaian; orduan batxilergoa jarri zuten han, institutua. Sei urteko ikasketak ziren. Beste lagun bat (Migel Aspiazu) eta bera Donostiara joan ziren soldadu, boluntario moduan, ikasten jarraitu ahal izateko. Perito Mercantil, hiru urtekoa.

2. Gerra ondoren, Galdos karretila-lantegira

- **Erref:** ONA-133/004
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:05:25. **Bukatu:** 00:07:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debagoieneko lantegiak

Laburpena:

Merkataritza-peritu izateko, akademia batean ikasi zuen, Donostian. Hori egiten hasi, eta gerra hasi zen. Gerora, hiru urte egin zituen Langileen Batailoietan. Oñatira bueltan, bulego batean hasi zen lanean, Galdos karretila-lantegian. Non zegoen.

3. Galdos karretila lantegia II

- **Erref:** ONA-133/006
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:07:54. **Bukatu:** 00:10:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Galdos karretila lantegiko bulegari. Zein tresnaren kirtanak egiten zituzten han. Egurrezko karretilak, eta gero metalezkoak. Domingo Galdos zen ugazaba.

4. Torreko kontuak eta Kale Zaharrekoak

- **Erref:** ONA-133/009
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:13:47. **Bukatu:** 00:16:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Torre auzoko dorrean tabernarik ez zegoen gerra aurretik. Ganadua bai. Soroan ere laguntzen zuen mutikotan. Itaurrean egiten zuen batez ere. Anaia gehiago joaten zen. Bi osaba bizi ziren han orduan, bata ezkondua. Kale Zaharrean zegoen bizikleta denda, Aloña; gerra ondoren taberna jarri zuten.

5. Kale Zaharreko negozioak, gerra aurrean

- **Erref:** ONA-133/011
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:17:08. **Bukatu:** 00:20:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Kale Zaharreko dendak, gerra aurrekoak. Fonda Ona. Illarramendi. Guereka txokolateak. Lasena. Uztargillena. Arrillaga txokolateak. Leturia botika. Bujero taberna eta jatetxia. Txaketua. Bi pelukeria; Nicolassen aita. Patxitxorena gerra ostekoa da. Bankua.

6. Kale Zaharreko negozioak II; aita banastagina

- **Erref:** ONA-133/013
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:20:47. **Bukatu:** 00:24:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Kale Zaharreko negozioak. Rodrigo Mugarzaren harategia. Luixena. Janari denda. Sillero gerokoa da. Bera etxe hartan jaio zen. Aita banastagina zen, eta tailerra zeukan etxe azpian. Sastreria eta ile apaindegia. Juan Igartua sastrea. Aurelio bizargina.

7. Banastagintza eta institutua

- **Erref:** ONA-133/014

- **Iraupena:** 0:03:53. **Hasi:** 00:24:23. **Bukatu:** 00:28:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Banastagin gehiago ere bazeuden Kale Zaharrean. Egurra baserritarrek ekartzen zioten, gaztaina. Arrobaka. Uda bukaeran erosten zuten egurra, urte denerako. Aitari laguntzen ibilia da. Institutuan ez zuen astirik. 1928ko urrian hasi zen; matrikulak 100 pezeta balio zuen, liburuak bost duro. Aita 06:30ean jaikitzen zen, 12:30ean bazkaldu eta gero 20:30 arte lanean. Zazpi senidetan zaharrena.

8. Euskaraz egiteagatik zigorra, gerra aurrean

- **Erref:** ONA-133/016
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:29:05. **Bukatu:** 00:30:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Dena erdaraz ikasi zuen. Errepublika denbora. Euskaraz egiteagatik maristek zigorrak jartzzen zituzten.

9. Onraitia lantegian I

- **Erref:** ONA-133/018
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 00:30:30. **Bukatu:** 00:35:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Karretila lantegian hamar urtean ibili zen. Gero, 32 urte egin zituen beste tresna lantegi batean, Onraitanean. Aizkorak, aitzurrak... egiten zituzten. Espainian saltzen zuten. Lan faltarik ez. Administrazioa eramaten. 36 bat langile. Patricio Etxeberriatik ekartzen zuten burdina. Ugazabak: Benito Onraitia eta Patxi Mendiola.

10. Onraitia lantegian II: prozesua

- **Erref:** ONA-133/019
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:35:20. **Bukatu:** 00:39:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Fundizioa

Laburpena:

Aizkorak eta aitzurrak nola egiten zituzten. Labean berotu eta mailu mekanikoekin forma eman. Aizkora motak. Zorroztu egiten zituzten, eta pulitu. Gorriz pintatzen zituzten. Emakumeak, enpaketatzen. Kamioiz bidaltzen zituzten Zumarragara eta trenez.

11. Onraitia lantegian III: azken urteak

- **Erref:** ONA-133/021
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:42:21. **Bukatu:** 00:44:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Burdingintza
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Fundizioa

Laburpena:

Bera jubilatuta aurretik jabez aldatu zen Onraitia lantegia, eta ondoren itxi egin zen; langile gehienak Mugarza, Ugarte y Compañía fundiziora joan ziren lanera. Txintxurreta eta Garai.

12. Urbian, Aita Lasarekin I

- **Erref:** ONA-133/022
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:44:08. **Bukatu:** 00:48:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:

Mendizalea izan da. Domekero Urbiara joaten zen. Aita Lasa laguna zuen; meza ematera joaten zen hura, eta bera laguntzera. Euskaraz izaten zen. Eloi Tejada bilbotarra ere elizmutil lanetan. Preso egona zen hura ere. Zegaman zebilen lanean, paper lantegian; Brinkolatik igotzen zen. Ermitan bertan bazkaltzen zuten.

13. Urbiako ermitaren inaugurazioa

- **Erref:** ONA-133/025
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:51:33. **Bukatu:** 00:53:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak

Laburpena:

Urbiako ermitaren inaugurazioan egon zen 1924an, aitarekin. Mutikoa zen. 18 bat urterekin hasi zen domekero joaten. Gerra denboran lau urte egin zituen Oñatira etorri gabe.

14. Oñatiko abesbatzakoa eta bandakoa

- **Erref:** ONA-133/026
- **Iraupena:** 0:03:37. **Hasi:** 00:53:05. **Bukatu:** 00:56:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Oñatiko abesbatzan ere ibili da, puntura arte. Mutikotan hasi zen. Lehen dena gizakumeak. Solfeoa umetan ikasi zuen, Don Casimiro apaizarekin. Organista. Kantuak ez dira asko aldatu. Ez ziren kanpora joaten, beti parrobian. Bandan klarinetea jotzen zuen, gerra aurretik. San Inazio eguna; plazan jo eta diana, jai egun berezietan. Ibilbidea.

15. Ospitaleko administrailea I

- **Erref:** ONA-133/029
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 01:00:03. **Bukatu:** 01:00:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak

Laburpena:

Ospitale zaharrean hasi zen, administratzaile moduan; gero, Etxaluzen egon zen ospitalea. 25 bat lagunentzat zegoen tokia. Berriaren fundatzaileetako bat da.

16. Ospitaleko administratzailea II

- **Erref:** ONA-133/031
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 01:03:05. **Bukatu:** 01:07:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

1974ean inauguratu zuten ospitale berria. 1966 urte inguruan egon zen bera ospitale zaharrean. Reyes Korkostegik eskatu zion administrazioaren kargu egiteko. Erresidentziako administrazioa eraman zuen 2002. urtera arte, debalde. Milagrosako mojak noiz etorri ziren Oñatira.

17. Emaztea nola ezagutu zuen

- **Erref:** ONA-133/035
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 01:09:25. **Bukatu:** 01:12:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Emaztea nola ezagutu zuen kontatzen du. Gorputz Eguna zen, 1947 urte inguruan. Txantxiku Txokon orkestra zegoen, kanpoko, eta bi neskak gonbidatu zituzten hara; plazan dantzan zebiltzan neskak. Etxera lagundu zion. Oñatiko jaietan pixka bat hobeto ezagutu zuen. Lau urte nobiotan.

18. Jaietara nora joaten ziren

- **Erref:** ONA-133/037
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 01:12:36. **Bukatu:** 01:14:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Bergarara joaten ziren hango jaietan. Bestela, beti Oñatin. San Pedro, Zubillaga, Olabarrieta... auzoko jaietara ere joaten ziren, Araotzera eta Urrexolara ez. Neska laguntza herrian bertan egiten zuten. Nobiotan lau urte eginda ere, beti formal.

19. Osintxutik bueltan guardia zibilekin izandako arazoa

- **Erref:** ONA-133/040
- **Iraupena:** 0:05:11. **Hasi:** 01:16:50. **Bukatu:** 01:22:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Osintxutik Bergarara trenean zihoazela, ika-mika izan zuten batzuekin, leku faltarengatik. Guardia zibilak sartu ziren, Labe Garaietan; besteen lagunak ziren, eta atxilotu egin nahi zituzten. Etxera iritsi, eta Oñatiko guardia zibilak joan zitzaizkion etxera. Joateko komisariara. Arrasatera eraman zuten. Gero, libre utzi zuten, Reyes Korkostegiri esker.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com